

AMERIKAKO PANPETAN

[Pedro Mari Otaño](#)

(Zizurkil, Gipuzkoa, 1857 – Rosario, Argentina, 1910)

Euskara batuan

1/ Euskal Herriko lur maite hartan jaio nintzen baserrian, / itzal handiko intxaur arbola bat dago gure atarian; / haren ondotik irten eta noiznahi maldako gaztainadian, / edo sagarrik onenak jaten Luberriko sagastian, / arbola tartean bizi izan nintzen gazte denbora guztian.

2/ Denak utzi eta etorri nintzen, lur hau ikusi nahi nuen! / Haritz [tantaiak](#), pago [lerdenak](#), nola ez izan gogoan! / Orain artzaintzan Ameriketean, arrantxo baten ondoan, / eguna pasa larrean eta jirutzen naizen orduan, / nire begiak gozatzen dira aldameneko ombú-an.

3/ Hainbestearaino tristatzen naiz [eremu](#) zabal horietan, / arbolak, mendi eta errekek falta diren zelaietan, / non etorri eta esertzean ombú tzar honen zainetan, / edo igo eta hosto tartean bere adar bikainetan, / ene, amatxo!, nik nola esan zenbat gozatzen dudan!

4/ Txabola ondoko ombú laztana, maitatzen zaitut gogotik, / eta bihotza erdibitzen zait joatean zure ondotik, / nire burura ekartzen duzun oroimen gozoagatik. / Zure itxura nahi dut ikusi, ez dizut eskatzen frutarik, / ni hemen bizi naizen artean, arren, egon zaitez zutik!

5/ Nire lagunik maitatuena, ombú laztana, zu zera, / horregatik nator zure kolkora ni malkoak isurtzera, / iruditurik naramazula atariko intxaurpera... / Beti izango zaitut gogoan, baina joan nahi dut ostera / euskal lurreko arbolape hartan nire hezurak uztera.

OTAÑO, Pedro Maria (1994). [Bertso guziak](#). Donostia: Auspoa Liburutegia 218. (193-194).